Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Rosario Illarramendi Larrañaga

Zarautz, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Zarautzen jaio zen San Frantzisko kalean, 7 senideren artean bera 5.a. Aita arotza zuten, Beristainen tailerrean lan egiten zuena; ama etxekoandrea zen, oso emakume alaia eta bizia. Zarautzen izandako aldaketak ondo ezagutu izan ditu, baina herriko giro ona ez omen da aldatu ezta gerraren pozoiarekin ere. Eskolako kontuak, gaztetako giroa, dantzak... gogoan ditu.

Zintak

ZAR-135

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-07-15
- **Iraupena**: 56 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

ZAR-136

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Data**: 2011-07-15
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Bizkarreko arazoengatik ezin eskolara joan

- **Erref**: ZAR-135/003
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:02:47. **Bukatu**: 00:05:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Eskola nazionalean ikasi zuen eta 11-12 urte zituela ohean egon behar izan zuen urtebete baino gehiago, bizkarrean arazoak izan zituelako. Garai hartan denbora nola pasatzen zuen azaltzen du. Eskolan galdutako urte hura ezin izan zuen errekuperatu.

Transkripzioa
-Eskola esto nazionalea, “escuela publica” o esaten zana. Eta nik hamaika

urtekin, hamaika urte ta hamabi ohian in nitun, porke bizkarrezurra esto indarra zeozer, sagardoteya esan dizut amai laguntzeagatik botellak eramaten, entregatzen ta nunbait indarra in nula “algun esfuerzo” esaten zian meikuak eta bi bertebra atea eitin zitxaizkiten. Eta oain ez nintzake baiño orduan ohian sartu, in zien eskaiola dana itxi gabe, atzealdia bakarrikan, ta urte terdi o iya gehio hamahiru urte arte iya.
-Dana eskaiolatu!
-Bai, atzia eskayolatu, baiño geo garbitzeko ta hortik ateatze zien, osea. Ta geo sendatu nitzanian ohian jartzen nun eskayola ta eskayolan sartzen nitzan, bai ohituta ohian ezin nun.
-Eta miñikan edo eukin zenun?
-Gero ez, baiño aurrenian bai izuarrizko oiñazia bai.
-Ta gero bere onera etorri zan.
-Bai. Bizkarrezurran “dos vertebras” erten zian ta oain´e juten naizenian meikuana zeozer beiratzen ta “¿qué ha pasado aqui? Que ha habido aqui?” beti esaten hori gauza, hori hamaika urtekin izandare.
- Ta ze iten zenun horrenbeste denporan ohian?
-Ohian aitak in zian kaja bat [...], kaja bat egurrezkua in zian han koltxoyak etan esto ta geo hor atzian batza gendun. Ta hartzen zien anayak ta aitak biyan artian ta batzan igual jartzen zien. Bai ta geo eskolak oain jubilatuta daon horrei batza ematen zuen ta eskolako launak ta kaso iten zien ta denak bera etortzen zian jolasea ta horrela, geo aurreko aldian balkoyan jarri ta kaleko jendia ikusi.
-Ta bitartian baten bat etortzen zitzaizun etxeko lanak edo...
-Hori esaten nizun ba nik, oain bai leheno ez zan holako gauzikan. Oain bai oain etorriko liake ta erakutsiko ziaketen. Nik nere launak hasten dianian geografiya ta Ameriketako kontuak esaten ni isil-isilikan eoten naiz, ta esaten diot “que tonta soy, verdad?” Ez.
-Galduta urtia gero ez zendun errepikatu?
-Ez, karo geo zan gerra ondoren ta dana ber zan etxian. Ta hamalau urte kunplitu nitunian, urte terdi ohian eon ta geo, kurso bat in nun eskolan gero,eta hamalau urtekin lanea.

2. Ikasketa onak emateko dirua nondik atera?

- **Erref**: ZAR-135/004
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:05:24. **Bukatu**: 00:07:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Eskolan ibili zen bitartean, gustura ibili zen. Anaia ona zen eskolan eta hura ingeniari izateko proposatu zioten aitari; etxean, ordea, ez zegoen dirurik halako ikasketak emateko, gerora beste senide guztiak baitzetozen.

3. Telebistan ikusitako lehenengo gauzak

- **Erref**: ZAR-135/007
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:09:13. **Bukatu**: 00:10:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Telebista ekarri zutenean ikusten zituzten lehenengo gauzak gogoan ditu. Gauean emisioa eten egiten zen. Telebista ikusteko etxeko denak elkartzen ziren.

4. Etxeko giro ona

- **Erref**: ZAR-135/010
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:12:14. **Bukatu**: 00:13:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama oso ona zen, autentika. Etxean oso giro ona zeukaten.

5. Tipula esnetan egosita

- **Erref**: ZAR-135/012
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:14:02. **Bukatu**: 00:14:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Ez zuten sendabelarrak erabiltzeko ohiturarik etxean. Behin eztul handia zuen Rosariok, eta amak tipula esnetan egosita eman zion; gerora ez zuten berriro erabili sendabide hura, baina.

6. Erlakiztenen aurkako sendagaia

- **Erref**: ZAR-135/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:14:41. **Bukatu**: 00:16:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Erlakiztenak izanez gero, amak bazuen haren aurkako sendagaia. Erlakiztenak zer ziren azaltzen du. Antrak ere izaten ziren gerra ostean.

7. Sarna eta zorriak

- **Erref**: ZAR-135/014
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:16:31. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Lehen sarna asko egon zen. Rosarioren ahizpak zorriak izan zituen eta orrazi estuarekin orraztu behar izaten zuen ilea, zorriak eror zitezen. Zorrietatik babesteko olioa jartzen zuten ilean.

8. Umetako bainuak etxean

- **Erref**: ZAR-135/016
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:18:29. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Ura bazeukaten etxean, eta gerora aitak bainu txiki bat jarri zuen. Oso gustuko zuen hura Rosariok. Txikiak zirenean, astean behin garbitzen ziren sukaldean baldea jarrita.

9. Anaiarekiko maitasunagatik gaixotu

- **Erref**: ZAR-135/018
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:20:35. **Bukatu**: 00:21:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:
Rosarioren lehengusu bat tuberkulosiak jota hil zen, anaiak gerratik ekarritako alpargatak janzteagatik kutsatuta.

10. Gerran, Zarautz hartu zuten eguna

- **Erref**: ZAR-135/020
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:22:41. **Bukatu**: 00:25:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerra Zarautza iritsi zenean, udaletxea erre zuten eta Rosario hura ikustera joan zen. Gerraren nondik norakoen berri nola izaten zuten aipatzen du. Gerran nazionalek Zarautz hartu zuten eguna, gerora, jaiegun izan zen urte askoan.

11. Gerran, Zarautzen egondako fusilamenduak

- **Erref**: ZAR-135/021
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:25:23. **Bukatu**: 00:26:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Zarautzen, gerran, gizon ugari fusilatu zituzten. Gerora, Zarautzen elkarbizitza bere onera etorri zenean, fusilatu zutenetako baten alabak aita hil zuen gizonarekin elkarrizketa laburra baina gogorra izan zuen.

12. Zarauztarren arteko giro ona

- **Erref**: ZAR-135/022
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:26:51. **Bukatu**: 00:28:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Zarautzen jendea oso ondo konpondu izan da elkarren artean, joera politikoek eragindako aldeak albo batera utzita.

13. Azken Portuko garbitegia

- **Erref**: ZAR-135/025
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:30:19. **Bukatu**: 00:31:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Azken Portuko garbitegiko argazkia erakusten du. Garbitegian zer egiten zuten azaltzen du.

14. "El puente de Waterlootik" aurrera

- **Erref**: ZAR-135/028
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:35:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Narros jauregi ondoko zubiari "el puente de Waterloo" deitzen zioten lehen. Neskak handik aurrera joatea oso gaizki ikusia zegoen lehen, baina beraiei horrek ez zien ardurarik; liberalak izan dira.

15. Zarautzen euskarak izandako galerak eta irabaziak

- **Erref**: ZAR-135/029
- **Iraupena**: 0:03:43. **Hasi**: 00:35:13. **Bukatu**: 00:38:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Lehen nesken artean dena erdaraz egiten zuten, eskolan dena erdaraz egiten baitzuten; horregatik euskara asko galdu zen Zarauzko nesken artean. Mutilek, ordea, eskolan euskaraz egiten zutenez, ez zuten galdu. Neska-mutilen artean erdaraz egiten zuten. Umetan erdaraz egin eta euskararekiko kontzientzia sartu zitzaien mutil batzuei buruz hitz egiten du.

16. Batzokiko kultura-jarduerak

- **Erref**: ZAR-135/031
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:39:36. **Bukatu**: 00:42:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak

Laburpena:
Gerra aurretik batzokian euskal dantzak egiten ziren. Orduko andereñoa nor zuten azaltzen du. Emanaldiak egitera kanpora joaten ziren. Batzokian antzerkiak izaten ziren, euskaraz.

17. Gerran alde egindakoen zoria

- **Erref**: ZAR-135/032
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:42:06. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Gerra iritsi zenean, batzokiko jarduerak bertan behera gelditu ziren. Gerora hasi zen berriro martxan. Jende askok Zarauztik alde egin zuen gerra garaian: batzuek Venezuelara, besteek Belgikara... Haietako batzuei buruz hitz egiten du.

18. "Zenbat txorakeria egin genuen guk orduan..."

- **Erref**: ZAR-135/034
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:45:39. **Bukatu**: 00:46:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Gaztetan mutilekin dantza lotua egiten zuten, ez zegoen debekatuta. Mariaren Alabak kongregaziotik bidaliko zituztela mehatxatzen zituzten orduan, baina gerora, debekatzen aritu ziren haiek damutu egin ziren egindakoaz.

19. Ama liberala izan zuen

- **Erref**: ZAR-135/035
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:46:48. **Bukatu**: 00:48:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ama oso liberala zuten. Dantza lotua egiteagatik bikarioak mezan atentzioa ematen zuen; baina amak jarrera irekia izaten zuen horrekiko. Lehen bizikleta hartuta joaten ziren inguruko festetara.

20. Azken pieza jo aurretik alde egiten zutenekoa

- **Erref**: ZAR-135/037
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:49:19. **Bukatu**: 00:51:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:
Dantzan musika nork jotzen zuen aipatzen du. Bandak hiru tandatan jotzen zuen musika; gerra ostean, "Viva España" abestu behar izaten zuten azken pieza jotakoan; pieza bukatu baino lehen, ordea, gehienek alde egiten zuten plazatik.

21. Dantzaldietako giroa

- **Erref**: ZAR-135/038
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:51:12. **Bukatu**: 00:53:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Plazan ikasi zuten dantzan. Mutilek neskei dantzatzeko nola eskatzen zieten aipatzen du. Garai batean, soldaduak ibili ziren Zarautzen eta haiek ere dantzara joaten ziren, uniformea jantzita zeukatela. Neska-laguntzak ere izaten ziren orduan.

22. Neskak moilan bainatzea debekatuta

- **Erref**: ZAR-135/040
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:54:05. **Bukatu**: 00:55:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Hondartzara joateko ohitura bazeukaten; neskek ezin zuten bainatu moilan (igerian ikasteko erabiltzen zen lekuan) eta horregatik Rosariok ez zuen ikasi ondo igerian.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-05

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com